

Anai-arreben arteko gatazkak konpontzeko estrategiak

Familientzako irizpide orokorrak:

- Anai-arreben arteko gatazkak irakasbide moduan erabil daitezke baina eginbide horretan denbora eta arreta handiagoa jarri behar da gatazkak zigortzean baino.
- Ahal izanez gero, hobe da gatazkan ez sartzea eta egokiena seme-alabei gatazka konpontzeko irtenbideak aurkitzen laguntzea da.
- Gatazkak konpontzeko eredu bat eskaintzen badizkiegu seme-alabei, gero guk eredu hori jarraitu behar dugu familiako gatazkak konpontzeko.
- Gatazkak konpontzeko eskaintzen diren ereduekin bat egin behar dugu gurasook.
- Anai-arreben arteko iskanbilekin edo borrokekin ez dugu asaldata agertu behar. Kontuan hartu gatazka horiek besteen egoera emozionala, desioak, beharrak... ulertzen laguntzen dietela umeari, bere garapen intelektuala eta soziala indartuz.
- Ez ahaztu portaera bat gatazkatsutzat jotzea jarrera pertsonalaren kontua dela: ez dugu edozein eztabaida gatazkatsutzat jo behar.

Anai-arreben arteko eguneroko gatazken aurrean:

- Ez dugu gatazka eten behar. Gatazka modu naturalean hartu behar dugu eta eguneroko bizimoduko gatazka txikiak elkarrizketan oinarritutako konponbide sortzaileak proposatzeko erabili behar ditugu.
- Ez dugu gatazka eten behar argudioak eman gabe eta konponbideak eskaini gabe.
- Ez dugu gure ustez jokabide okerra duen umea makurrarazi behar; konponbidea aurkitzen saiatu behar dugu.
- Ezin ditugu onartu eraso fisikoan, ahozko erasoan edo indarkerian oinarritutako konponbideak.
- Zigorra ezarri gero, zuzendu beharreko jokabidearekin egongo da lotuta; ez dira jokabide horrekin zerikusia ez duten pribilegioak kendu behar.
- Gatazka deskribatu behar dugu, konponbide bat baino gehiago proposatu ditzakegu eta azkeneko konponbidea anai-arreben esku utzi dezakegu.
- Ezin dugu seme-alaben aurrean euren gatazken biktima bezala agertu (esate baterako, gurasoei gaixotasunen bat eragingo dietela esatea. Adib.: nirekin bukatuko duzue).
- Umea bestearen lekuan jartzeko adimen-gaitasuna baldin badauka (5 urtetik aurrera), konponbide-proposamenak eskaini bere gurariak bestearen nahiekin parekatzeko. Adib: orain berari tokatzen zaio eta gero zuri, berak zu sentitzen duzuna sentitzen duelako ere.

Anai-arreben artean eraso fisikora iritsiz gero:

1. Eraso eten.
2. Egoera desagokia dela azaldu.
3. Aldi baterako banatu.
4. Gatazkari elkarrizketaren bidez aurre egin.
5. Erasotzaileari zigor fisikorik ez ezarri.
6. Erasotzaileari jaramonik ez egin eta jokabide oldarkorrek bestearengan eduki dituen ondorio kaltegarriak erreparatu: egindako mina eta hori inorentzat ez dela desiragarri ikustarazi.
7. Anai-arrebetako bat biktimatzat ez hartu eta, arazoa bere kabuz konpontzeko orduan, bereganako konfiantza duzuela azaldu.

LABURPENA

Familia barruan anai-arreben arteko harremanak aparteko eskola dira gatazkak era egokian konpontzen ikasteko.

Esan daiteke gatazkak konpontzeko gaitasuna oso aberatsa dela eta, beraz, estrategiak daude gatazkak bertan parte hartzen duten guztientzat aberasgarriak izan daitezkeen aukeratan bihurtzeko.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández

Dr. Juan Luis Martín Ayala

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia